



12/2021 TXOSTENA, EKAINAREN 25EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA

XEDEA: GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKI-PROPOSAMENA, ZEINAREN BIDEZ ADOSTASUNA ADIERAZTEN BAITA ETA ESPRESUKI BAIMENA EMATEN BAITA ELIKA, NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEGURTASUNERAKO EUSKAL FUNDAZIOA –EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILARI ATXIKIA– EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEEN BITARTEKO PROPIO PERTSONIFIKATUTZAT AITORTZEKO ETA FUNDAZIOAREN SORTZE-ESTATUTUAK ALDATZEKO.

I.- AURREKARIAK.

2021eko ekainaren 2an, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak txostena eskatu zion Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari, Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenari buruz. Erabaki-proposamen horren bidez, adostasuna adierazi eta espresuki baimendu zen Elika, Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa (aurrerantzean, Elika Fundazioa) – Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikia– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen bitarteko propio pertsonifikatutzat aitortzea eta fundazioaren sortze-estatutuak aldatzea.

Espedientea prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da (erreferentzia: AAAA_ACG_3996/21_05).

I.- EDUKIA.

Erabaki-proposamenaren xedapen-zatian honako erabaki hauek biltzen dira:



«Lehena.- Adostasuna adieraztea eta espresuki baimena ematea Elika, Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen bitarteko propio pertsonifikatutzat har daitekeela aitortzeko, betiere horrelakoa izateko kontratazio publikoaren araudiak ezartzen dizkion baldintza guztiak betetzen baditu.

Bigarrena.- Baimena ematea Elika Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioaren estatutuak aldatzeko. Hain zuzen, estatutuen testu bategina honako hau izango da hitzez hitz:

ELIKA, NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEGURTASUNERAKO EUSKAL FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Eratzea, izena, iraupena eta bitarteko propio instrumentala eta zerbitzu teknikoa.

1- ELIKA, Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa (aurrerantzean, ELIKA Fundazioa) izenarekin fundazio bat eratu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearekin eta indarrean dauden gainerako arau-xedapenekin bat etorrira.

2.- ELIKA Fundazioa irabazi-asmorik gabe eratutako erakundea da. Bere sortzaileen borondatez, bere ondarea estatutu hauen 3. artikuluan azaltzen diren interes orokorreko xedeei egongo da lotuta modu iraunkorren.

3.- ELIKA Fundazioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluan ezarritako ondoretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen bitarteko propio pertsonifikatua da.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 23. bis artikuluan xedatutakoaren arabera, ELIKA Fundazioak bere jardueraren funtsezko zatia egingo du bera bitarteko propio pertsonifikatutzat duten erakundeekin, eta, beraz, honako hauek aplikatuko zaizkio: Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluan ezarritakoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. titulua, bitarteko propioei eta zerbitzu teknikoiei egindako mandatuei buruzkoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailek eta ELIKA Fundazioa bitarteko propio pertsonifikatutzat duten gainerako erakundeek fundazioaren sortze-helburuarekin egindako jardunak, zerbitzuak eta beste edozein jardun egiteko agindu diezaiokete fundazioari, betiere horrek administrazio-ahalmenak gauzatzea ez badakar.



Sail edo erakundeek kasuan kasuko aginduaren bidez ematen dizkioten lanak nahitaez egin beharko ditu ELIKA Fundazioak, eta egin ere, sail edo erakunde horiek euren aldetik finkatutako irizpideen arabera.

Mandatu horiek instrumentalak dira, kontratuz kanpokoak, eta, hortaz, ondorio guztietarako, barnekoak eta mendekoak dira. ELIKA Fundazioak nahitaez bete beharko ditu, eta fundazioa atxikita dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailaren arau organikoek adierazitako organoak nahikotasun ekonomiko-finantzarioaren irizpideari jarraikiz ezarritako tarifak aintzat hartuta ordainduko dira, ELIKA Fundazioa bitarteko propio pertsonifikatutzat duten gainerako erakundeen parte-hartzearekin.

Bitarteko propio pertsonifikatua den aldetik ELIKA Fundazioari aginduko zaizkion nahitaezko jardunak proiektu, memoria edo bestelako dokumentu teknikoetan zehaztuko dira, zein den kasua, eta dagokien aurrekontuan balioetsiko dira, ezarritako tarifei jarraikiz.

Bitarteko propio pertsonifikatua denez, ELIKA Fundazioak ezin izango du parte hartu bitarteko propietzat duten erakundeek deitutako lizitazio publikoetan; nolana ere, lizitatzailerik bat ere agertzen ez bada, lizitazioaren xede den prestazioa gauzatzeko agindu diezaioke.

2. artikulua.– Araubide juridikoa, gaitasuna eta nortasun juridikoa.

1.- ELIKA Fundazioak nortasun juridiko propioa eta independentea du eratze-eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatzen denetik aurrera, eta gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa izango du, honako hauek soilik mugatua: sortze-egintzan fundatzaileen borondate-adierazpena, estatutuak eta, nolana ere, aplikagarri zaizkion legezko xedapenak, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea.

2.- Horrenbestez, eta Babeslaritzari egin beharreko jakinarazpenak gorabehera, Fundazioak, bere helburuak betetzeko, jarduteko gaitasun osoa izango du, Kode Zibilaren 38. artikuluan ezarritakoarekin bat. Fundazioak honako hauek egin ahal izango ditu:

a) Edonolako jarduera ekonomikoak garatzea bere helburuak betetzeko, edo bitartekoak horretara bideratzea.

b) Ondasun eta eskubide mota oro eskuratu eta besterentzea, edozein titulurekin, eta edozein ekintza, negozio eta kontratu mota egitea.

c) Legeen edo Fundazioaren estatutuen araberrako edozein ekintza gauzatzea.



3. artikulua.- Fundazioaren helburuak.

ELIKA nekazaritzako elikagaien segurtasunaren arloan aholkatzeko, informazioa emateko eta sustatzeko helburua duen fundazioa da. Arlo horretan egingo dituen jarduerak askotariko funtzioak hartzen dituzte barnean, hala nola:

- *Nekazaritzako elikagaien segurtasunarekin zerikusia duten alderdi guztiei buruzko irizpen zientifiko independenteak egitea.*
- *Nekazaritzako elikagaien arriskuak ebaluatzea eta horiek prebenitzeko, murrizteko edo gutxitzeko neurriak garatzea.*
- *Eusko Jaurlaritzari nekazaritzako elikagaien segurtasunaren arloko ikergai berriak proposatzea.*
- *Nekazaritzako elikagaien krisi-egoeren aurrean jarduteko prozedurak egitea.*
- *Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorean, animalien elikaduran eta nekazaritzako elikagaien enpresetan segurtasuna eta prozesuak hobetu daitezzen bultzatzea eta sustatzea.*
- *Ekoizpen jasangarria eta ingurumena errespetatzen duena bultzatzea.*
- *Elikadura segurua, jasangarria eta osasungarria bultzatzea.*
- *Lehiaketak, biltzarrak eta konferentziak antolatzea.*
- *Gaian espezializatutako aldizkariak eta argitalpenak plazaratzea.*
- *Fundazioaren xedeak gauzatzen lagun dezakeen beste edozer.*

Fundazioaren helburuak Fundazioak berak eraman ditzake aurrera, egoki deritzon moduan, eta beste hainbat entitate edo erakundetan parte hartu ahal izango du. Horretarako muga bakarrak izango dira sortze-gutuna, estatutu hauek, eta, edonola ere, legeek jasotzen dituztenak.

[...]

II. TITULUA.- PATRONATUA

7. artikulua.- Fundazioaren patronatua.

Patronatua fundazioko gobernu- eta ordezkari-organoa da. Patronatuari egokituko zaio fundazioaren helburuak betetzea eta fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak arduraz administratzea, baita haien errendimendua eta erabilgarritasuna segurtatzea ere.

8. artikulua.- Patronatuaren osaera.

1- Patronatua gutxienez bederatzi (9) pertsonak eta gehienez hamalauk (14) osatuko dute.



Patronatua osatzen duten pertsonak nahitaz eutsi behar diote organo horri ezarritako gutxienerako pertsona kopuruarekin, eta kopuru hori ezingo da bederatzi baino txikiagoa izan.

2.- Patronatuko kide izan ahalko dira pertsona fisikoak nahiz juridikoak. Patronatua osatzen duten pertsona fisikoek jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, eta ezin izango dira desgaituta egon kargu publikoak betetzeko. Patronatuko kide diren pertsona juridikoek pertsona fisiko bat edo batzuk aukeratu beharko dituzte organo hartan ordezkari ditzaten.

3.- Patronatua honako kargu hauek osatuko dute:

- Presidentea.

- Idazkaria (Fundazioaren Patronatuko kidea ez bada, eta, beraz, ahotsa bai baina botorik ez badu, espresuki eman beharko da horren berri).

- Diruzaina (aukerakoa).

- Presidenteordea (aukerakoa).

- Bokalak.

Fundazioaren Patronatuko berezko karguak:

a) Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea.

b) Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria.

c) Bi patronatuko kide espresuki izendatuko ditu Nekazaritza eta Arrantza Saileko edo hori ordezkatzeko duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko saileko buruak.

d) Patronatuko kide bat espresuki izendatuko du Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko edo hura ordezkatzeko duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko saileko buruak.

e) Patronatuko kide bat espresuki izendatuko du Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Administrazio Publikoko Saileko edo hura ordezkatzeko duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko saileko buruak.

f) Patronatuko kide bat espresuki izendatuko du AZTI fundazioko patronatuak.

g) Patronatuko kide bat espresuki izendatuko du HAZI fundazioko patronatuak.



h) Patronatuko kide bat espresuki izendatuko du NEIKER erakundeko Administrazio Kontseiluak.

i) Halaber, eta inguruabarrek hala eskatzen badute, kide berriak fundazioaren patronatuaren beraren ekimenez izendatu ahal izango dira, eta fundazioko presidentek izendatuko ditu.

j) Era berean, fundazioaren patronatuaren beraren ekimenez izendatutako kideek kargua utzi ahal izango dute inguruabarrek hala eskatzen dutenean, eta fundazioko presidentek kargugabetuko ditu.

[...]

32. artikulua.- Ekonomia-, enpresa- edo merkataritza-jarduerak garatzea.

1.- Ekonomia-, enpresa- edo merkataritza-jarduerak egin ahal izango ditu fundazioak, zuzenean nahiz beste erakunde batzuen bitartez, halako jarduerak fundazioaren helburuekin lotuta badaude edota jarduera horien osagarri edo lagungarri badira, eta betiere lehiaren defentsarako araei men eginez.

2.- Beste erakunde batzuetan partaide izanda ere parte hartu ahal izango dute beste edozein ekonomia-jardueratan, sozietate-zorren gainean erantzukizun pertsonalik ez dagoen kasuetan.

[...]».

III.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Jakinarazi den erabaki-proposamenaren helburua 9/2017 Legearen 32.2.d) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. tituluaren 1. atalean ezarritakoa betetzea da. Lege hori azaroaren 8koa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (aurrerantzean, SPKL), zeinaren bitartez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) zuzentarauen transposizioa egiten den Espainiako ordenamendu juridikora:

SPKLren 32. artikulua, SPKL horren azken xedapenetako lehenengoarekin bat, oinarritzko izaera izango du, 6. apartatuko c) letrak izan ezik.



SPKLren 32. artikulua 2. apartatua azaltzen da zer baldintza bete behar dituzten pertsona juridikoek, zuzenbide publikoak nahiz zuzenbide pribatuak, sektore publiko erakunde jakin bakar baten bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzeko. Hau zehazten da atal horretan:

«2. Sektore publiko erakunde zehatz baten bitarteko propio pertsonifikatutzat hartuko dira baldintza hauek guztiak betetzen dituzten zuzenbide publiko zein zuzenbide pribatu pertsona juridikoak:

a) Mandatuak eman diezazkiokeen botere adjudikatzaileak mandatu erakunde hartzailea zuzenean edo zeharka kontrolatzea, bere zerbitzu edo unitateekin egingo lukeen bezala, lehenak bigarrenaren eragin erabakigarria izateko bere helburu estrategikoetan eta erabaki garrantzitsuetan.

Nolanahi ere, ulertuko da mandatuak eman diezazkiokeen botere adjudikatzaileak bere zerbitzu edo unitateei egiten dienaren antzeko kontrola egiten diola erakunde hartzaileari, baldin eta berak edo beste botere adjudikatzaile batek edo batzuek edo lehenengoak era berean kontrolatutako pertsona juridikoek mandatuaren erakunde hartzailearentzat nahitaez bete beharreko mandatuak eman badiezazkiokete, estatutuek edo sortze-egintzak hala ezartzen dutelako. Hortaz, haien erabakiak bat etorriko dira, mandatu egin dezakeen erakundeak alde bakarretik ezarritako jarraibideen arabera.

Ordaindu beharreko konpentsazioa ezartzeko, tarifa hauek hartuko dira erreferentziatzat: bitarteko propio pertsonifikatuak nagusi duen erakunde publikoak onetsita dauzkanak bitarteko propioak zuzenean egiten dituen eta mandatuaren xede diren jardueretarako. Eta, horretarako, mandatuaren xede diren eta enpresaburu partikularrekin azpikontratatu diren jardueretarako bitarteko propioak jasandako egiazko kostuari erreparatuko zaio, erregelamenduz erabakitzen den eran erreparatu ere, kostu hori txikiagoa denean azpikontratatuaren jardueri tarifak aplikatuz heldu dena baino.

Tarifa horiek, betiere, bitarteko propioak zuzenean ekoizitako unitateak egiteko benetako kostuak jasotzeko moduan kalkulatu dira.

b) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egiteko mandatu ematen duen eta hura kontrolatzen duen botere adjudikatzaileak –edo mandatu ematen duen erakundeak era berean kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez.

Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 hori kalkulatzeko, honako hauek hartuko dira aintzat: negozio-bolumen orokorraren batezbestekoa; botere adjudikatzaileari emandako zerbitzuengatik izandako gastuak, edozein entitateri emandako prestazioen truke bitarteko propioak izan dituen gastu guztiak aintzat hartuta;



edo jarduerari buruzko beste edozein adierazle fidagarri. Hori guztia mandatua formalizatu aurreko hiru ekitaldiei dagokienez.

Mandatua formalizatu aurreko hiru ekitaldietako negozio-bolumen orokorra edo –aurreko paragrafoan ezarri bezala– jarduerari buruzko beste adierazlerik eskura ez badago mandatua ematen duen botere adjudikatzaillearen sorrera-data dela-eta, haren jardueraren hasiera dela-eta edo haren jarduerak berrantolatu direla-eta, edo indarra galdu badute, nahikoa izango da jarduera-mailaren kalkulua errealitatearekin bat datorrela egiaztatzea, negozio-proiekzioen bitartez bereziki.

c) Mandatuaren hartzailea pertsona juridiko eta pribatua bada, gainera, bere kapital edo ondare osoa titulartasun edo ekarpen publikokoa izan behar da.

d) Mandatuaren hartzaile den erakundeak espresuki aitortu beharko du, bere estatutuetan edo sortze-ekintzetan, kasuan-kasuan mandatua ematen duen botere adjudikatzaillearen bitarteko propio pertsonifikatua dela, honako baldintza hauek bete ondoren:

1. Zer botere adjudikatzailerekiko bitarteko propioa izango den, haren adostasuna edo berariazko baimena.

2. Erakunde publikoak egiaztatu beharko du bere bitarteko propioa izango den ente horrek giza baliabide eta baliabide material egokiak dituela mandatuak bere xede sozialaren arabera betetzeko.

Mandatuaren hartzaile den entearen estatutuek edo sortze-ekintzak honako hauek zehaztu beharko ditu: enteak izaera hori zer botere adjudikatzailerekiko duen, eta eman ahal zaizkion mandatuaren araubide juridiko eta administratiboa zein den. Gainera, estatutuek edo sortze-ekintzak bitarteko propioari debekua ezarriko diote bere botere adjudikatzailleak deitutako lizitazio publikoetan parte hartzeko –halere, lizitatzaille bakarra ere aurkezten ez denean, mandatua eman ahal izango zaio enteari lizitazioaren xede diren prestazioak emateko–.

Letra honen 2. zenbakian ezarritako baldintza betetzat hartuko da, nolana ere, enteak dauzkan talde, azpitalde eta kategoriei dagokien sailkapena lortu duenean.

[...]».

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. tituluko 1. atalak arautzen du «bitarteko propioen eta zerbitzu teknikoaren izaera aitortzea»:



«60. artikulua. Organo eskuduna.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eremuan, nahitaz bete beharreko mandatuen hartzaile izateko ezarrita dauden lege-baldintzak betetzen dituzten erakundeek alde aurretik eskuratu behar dute Administrazio Orokor edo Instituzionalaren bitarteko propio eta zerbitzu tekniko izatearen adierazpen espresua, Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez. Erabaki horretan zehaztuko da erakundeak zer saili atxikiko zaizkion horretarako. Adierazpen hori aurrez erreboka daiteke, Gobernu Kontseiluaren erabaki arrazoitu baten bidez.

61. artikulua. Prozedura.

1.- Interesa duen Sailak hasiko du prozedura, eta egokitzat hartutako txosten teknikoak, administratiboak, ekonomikoak eta juridikoak erantsiko dira espedientean. Hura izapidetzen den aldi berean izapidetu ahal izango da erakundea sortzeko behar den prozedura edo erakundearen estatutuak zein arauak aldatzeko prozedura.

2.- Nolanahi ere, espedientean dokumentu eta txosten hauek egon beharko dute:

a) Estatutuak, sortze-arauak eta, oro har, erakundearen jardura eta borondate propiorik eza (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mende egoteagatik) agerrarazten duten antolaketa-arloko dokumentuak. Erakundea sozietate bat bada, espresuki egiaztatu behar da kapital osoa titulartasun publikokoa dela.

b) Aitorpena, egiaztatzen duena erakundearen ustiapen-sarrerak batez ere Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerako erakundeetakoak edo beste hirugarren batekoak direla, betiere sarrera horiek administrazioak berak dagozkion eskumenak baliatuz hartutako erabakiek zuzenean eragindakoak badira. Aitorpen horrek oinarri erabiliko duen informazioa erakundearen urteko kontuen memorian adierazitakoa izango da.

Lehen adierazitako baldintza betetzen dela egiaztatzeko, aurkeztu ahal izango dira, modu subsidiarioan, erakundearen kapital- eta ustiaketa-aurrekontuak, behar bezala onartuak.

c) Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenak.

d) Erakundeak esleituta duen zeregina sektore publikoko kontratuei buruzko oinarritzko legediak azpikontrataziorako ezartzen duen edo dituen mugak gainditu behar izan gabe



betetzeko erabiltzen dituen giza baliabideen, antolakuntza-baliabideen eta baliabide teknikoen egiaztagiria.

3.- Bitarteko propio edo zerbitzu tekniko izaera aitortzen duen Gobernu Kontseiluaren erabakia Kontratazio Publikoa Euskadin plataforman argitaratuko da, baita erakundea arautzen duen sortze-araudia edo estatutuak ere, eta mandatuak biltzen duten jardueraren eremua ere adieraziko da.

4.- Bitarteko propioetat edo zerbitzu teknikoetat hartutako erakundeek Gobernu Kontseiluari jakinarazi behar diote, atxikita dauden sailaren bidez, zer aldaketa izan diren adierazpenerako kontuan izandako inguruabarretan, aitorpena errebokatu egin behar den edo mantentzeko ikusteko».

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 23. ter artikuluan eta, testu bategin horren 23. bis artikuluekin lotuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 63. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, espedientean Toki Administrazioekiko Harremanetarako zuzendariak sinatutako txostena dago, 2021eko apirilaren 27koa.

Txosten horretan, Erika Fundazioaren estatutuaren egungo 6. artikulua ikusita (8. artikulua izango da estatutuaren idazketa berria), eta haren edukia aldatu gabe, fundazioaren patronatuaren osaerari dagokionez, adierazten da bete egiten direla Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 23. bis artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 63. artikuluan ezarritako betebeharrak, Erika Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio gisa sailkatzeko; izan ere, patronatuko kide guztiak sektore publiko hori osatzen duten erakundeek izendatzen dituzte eta sektore publiko horretako erakundearen diru-ekarpenarekin eratu zen.

Aurrekotik ondorioztatzen da SPKLren 32.2.a) artikuluan eskatzen den betebeharra betetzen dela; horri jarraikiz, bitarteko propio pertsonifikatuari mandatuak eman diezazkiokeen botere adjudikatzailerak hura kontrolatu behar du zuzenean edo zeharka, bere zerbitzu edo unitateekin egiten duen eran, eta, beraz, bitarteko propio pertsonifikatuan eragin erabakigarria izan dezake bere helburu estrategikoetan eta erabaki garrantzitsuetan.



Lehen aipatu den bezala, SPKLren 32.2.b) artikulua bete behar gisa ezartzen du pertsona juridikoek, zuzenbide publikoek edo pribatukoek, sektore publikoko erakunde zehatz bakar baten bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzeko, mandatuaren hartzailea den erakundearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago mandatu ematen duen eta hura kontrolatzen duen botere adjudikatuakileak –edo mandatu ematen duen erakundeak era berean kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betetz egin beharko dituela. Kalkulua egiteko, mandatu egin aurreko hiru ekitaldietako adierazleak aipatzen dira artikulua horretan.

Espedientean 2018., 2019. eta 2020. ekitaldietako urteko kontuak daude jasota.

SPKLren 32.2.b) artikuluan eskatzen den jardura-baldintzaren kopurua kalkulatzeko, «*Estatuko Abokatutza Orokorra-Estatuko Zerbitzu Juridikoaren eta Estatuko Administrazioa Esku-hartzailetza Nagusiaren Zuzendaritzak 2019ko martxoaren 22ko «Baterako zirkularra» eman zuen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 9ko 9/2017 Legean eskatzen den jardura-baldintzaren kopurua bitarteko propioztat hartzen diren erakundeetan kalkulatzeko irizpideei buruzkoa*».

Baterako zirkular horretan honako hau adierazten da: «*[...] kontuan hartu behar den jardura "botere adjudikatuakileak egindako adjudikazio baten arabera egiten dena izango dela, eta hori alde batera utzita jardura hori nork ordaintzen duen, botere adjudikatuakilea bera izan daiteke ordaintzen duena edota eskainitako zerbitzuen erabiltzailea (...)" bitarteko propioak berak egiten dituen jardura guztiei dagokienez.*

*Ildo horretan, bitarteko propioak aukeratutako adierazleak fidagarria eta arrazoizkoa, kuantifikagarria eta kontrastagarria izan behar du, eta, nolahi ere, arrazoizkotasunaren balorazioan kontuan hartu beharko da hautatutako adierazlea **bitarteko propioak egindako jarduerarekin lotuta dagoela, botere adjudikatuakileak emandako mandatuak baliatuz**, edo mandatu egiten duen erakundeak modu berean kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek egindako mandatuekin, eta ez emaitzekin edo beste magnitude batekin. Horrez gain, bitarteko propioak funtzio publiko bat betetzeko egindako jardueraren tratamendua aipatu behar da. Batzuetan, bitarteko propioaren izaera funtzio edo jardura publiko bat betetzen duten erakunde publikoetan gertatzen da, funtzio edo jardura hori egitea izanik erakunde horiek sortzeko arrazoia (zerbitzuen deszentralizazio funtzionala), eta, aldi berean, esleitu zaien funtzio publiko horretan sartuta ez dauden jarduerak egiteko mandatuak jaso ditzakete. Jardura nagusia ordenamendu juridikoak esleitutako funtzioak betetzea dakar, eta, beraz, ezin dira hirugarrenekin kontratatu modu orokorrean. Jardura mota hori hainbat modutan finantza*



daitekeenez, negozio-bolumen globalaren adierazlearen zenbaketari eragin liezaioke, baina, orokorrean, ulertuko da transferentzien bitartez jasotako diru sarrerak eta jarduera horretarako egindako gastuak zenbaketatik kanpo geratuko direla[...]».

Zirkularrean honako hau ere adierazten da: «[...] Kontu-auditoreek jarduera-baldintzaren egiaztapena eta proba erraztearren, ulertzen da negozioen kopuru globala kontzeptuari buruzko interpretazioak murriztailea izan behar duela, salbu eta kontrako proba badago, eta hori, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak adierazi duenez, jardueratik etekina lortuko duenak egiaztatu beharko du, hau da, bitarteko propioak.

Oro har, ez dira jarduera horretako zatitzat hartuko mandatu baten estaldurarik gabe egin direnak, eta justifikagarria izango da aldebakarreko ezarpenaren bitartez eta negozio juridiko honen ohar bereizgarriak izateagatik mandatu kontzeptuan sar daitekeen kostuan oinarritutako konpentsazioarekin egin direnak. Beraz, jasotako mandatuei dagokien zenbatekoa sartu beharko da adierazlearen zenbakitzailean. Zenbakitzailean ez dira sartuko erakundeak ekitaldian lortutako ondare-arloko emaitza ekonomikoa islatzen duen egoeran azaltzen diren magnitude hauek:

- a. Erakunde publikoari legez agindutako administrazio-ahal edo funtzio publiko bat betetzetik eratorritako diru sarrerak, arau juridikoak aplikatuzetik eratorritakoak barne. Azken kasu horretan, bitarteko propiorako derrigortasun-aldagaia eta tarifen egituran oinarritutako mandatuaren konpentsazio-aldagaia badaude izan ezik.
- b. Tributu-izaerako diru sarrerak.
- c. Botere adjudikatzaiaren jardueraren xedearekin lotutako diru sarreren partidak (kanpokoak edo ez).
- d. Transferentzia arruntak edo kapitalaren transferentziak erakundearen jarduera finantzatzeko, jardueraren instrumentazio juridikoa alde batera utzita, salbu eta egiazta badaiteke transferentziaren bitartez egindako finantzaketa horren zati bat botere adjudikatzaitatik jasotako mandatuekin lotuta dagoela zuzenean.
- e. Diruz lagun daitekeen jardueratik eratorritako diru sarrerak.

Halaber, ondoren aipatuko diren partidak negozio-bolumen globalaren zifratik kanpo utziko dira; izan ere, emaitzen kontua osatuko duten ondare-arloko izaera ekonomikoko magnitudetzat hartuta, ez dute zuzeneko harremanik izango jarduerarekin agindutako mandatuak direla medio:

- a. Erakundeak bere ibilgetuarentzat egindako lanak.
- b. Hornidura soberakinak.
- c. Ibilgetua besterentzearen ondoriozko emaitzak.

Adierazlearen izendatzailean honako magnitude hauek sartu beharko dira:



- a. *Merkataritza-jardueraren salmentak eta bestelako diru sarrerak (baldin eta erakundea irabazi-asmorik gabeko erakundeen kontabilitate-planaren egokitzapenaren mende badago); negozioen zifraren zenbateko garbia (erakundea Kontabilitate-plan orokorrari lotuta badago) edo salmenta garbiak eta zerbitzuak ematea (erakundea kontabilitate publikoko planari lotuta badago).*
- b. *Ustiapenerako dirulaguntzak.*
- c. *Erakundearen jarduerarekin zuzeneko harremana duten kudeaketa arrunteko beste diru sarrera batzuk [...]».*

2018. ekitaldiko urteko kontuei dagokienez, 11.1 oharrean jarduera propioaren diru sarrerak adierazten dira, hain zuzen, honela: «*Fundazioak 600.000 euroko dirulaguntza jaso du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Siletik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta fundazioaren arteko lankidetzahitzarmenaren esparruan, 2018. ekitaldian bere ustiaketa-jarduerak finantzatzeko (2017ari dagokion zenbatekoa 600.000 eurokoa da).*

Halaber, Fundazioak 166.388 euroko dirulaguntza jaso du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Siletik, Euskadiko Elikadura Osasungarrirako Ekimenen Programa finantzatzeko».

2019. ekitaldiko urteko kontuei dagokienez, 11.1 oharrean jarduera propioaren diru sarrerak adierazten dira, hain zuzen, honela: «*Fundazioak 760.000 euroko dirulaguntza jaso du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Siletik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmenaren esparruan, 2019. ekitaldian bere ustiaketa-jarduerak finantzatzeko (2018ari dagokion zenbatekoa 600.000 eurokoa da).*

Halaber, Fundazioak 50.000 euroko dirulaguntza jaso du Eusko Jaurlaritzako Osasun Siletik, Euskadiko Elikadura Osasungarrirako Ekimenen Programa finantzatzeko (2018ari dagokion zenbatekoa 166.382 eurokoa da)».

2020. ekitaldiko urteko kontuei dagokienez, 11.1 oharrean jarduera propioaren diru sarrerak adierazten dira, eta hau adierazten da: «*Fundazioak 800.000 euroko dirulaguntza jaso du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Siletik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta fundazioaren arteko lankidetzahitzarmenaren esparruan, 2019. ekitaldian bere ustiaketa-jarduerak finantzatzeko (2019ari dagokion zenbatekoa 760.000 eurokoa da).*

Halaber, Hazi Fundazioaren 50.000 euroko dirulaguntza jaso da, "gaur egun COVID-19ak eragindako egoera dela-eta ingurumenarekiko sentsibilizazio eta jasangarritasunaren



esparruan" sinatutako hitzarmena oinarri hartuta. Adierazitako zenbatekoa ekitaldian sortutako gastuak finantzatzeko erabili da, eta ekitaldia ixtean kobratzeke dago.

Bestalde, Europako Batzordearen 107.406 euroko dirulaguntza jaso da, 2020ko azarotik 2024ko apirilera bitartean egin beharreko gastuak finantzatzeko. Ekitaldia ixtean, 71.067 euro kobratzeke daude, eta proiektuaren aurrerapen-aurreikuspenen arabera kobratuko dela kalkulatzen da, egutegi honen arabera.

Ekitaldia	Zenbatekoa
Ejercicio	Importe
2021	15.573
2022	45.113
2023	0
2024	10.387
Guztira	71.067
Total	

Laguntza hori, finantzatutako gastuak gauzatzeke dauden heinean, balantzeko "beste pasibo finantzario batzuk" epigrafean erregistratu da, pasibo arruntetan eta pasibo ez arruntetan sailkatuta, gastu horiek gauzatzeko aurreikuspenaren arabera; hain justu honela gauzatuko direla aurreikusten da:

Ekitaldia	Zenbatekoa
Ejercicio	Importe
2020	3.536
2021	24.241
2022	32.091
2023	31.388
2024	16.150
Guztira	107.406
Total	

Aipatu behar da ekitaldian lortutako superabita (91.333 euro) langileetan gastu txikiagoa egin izanari zor zaiola neurri handi batean, urtearen erdialdean pertsona bat kontratatu zelako, urte osorako aurrekontua egin zenean, eta ezin izan zelako teknikari-plaza berri bat atera. Halaber, joan-etorrien eta egonaldien gastuak nabarmen murriztu dira COVID-19a dela eta. Ildo horretan, fundazioaren patronatuak kalkulatzen du, superabita egon arren, Eusko Jaurlaritzak ezingo duela zenbatekorik eskatu».



Transkribatutako 11.1 oharretan ikusten da, jarduera propioaren diru sarrerak batez ere ustiapenerako dirulaguntzenak direla. Dirulaguntza horiei dagokienez, Estatuko Abokatutza Nagusia-Estatuko Zerbitzu Juridikoko Zuzendaritzaren eta Estatuko Administrazioako Kontu-hartzailera Nagusiaren 2019ko martxoaren 22ko Baterako Zirkularraren arabera, aukeratutako adierazlea negozio-bolumen osoaren batezbestekoa denean, adierazlearen izendatzailean sartu behar dira diru sarrerak, eta adierazlearen zenbakitzailean, jasotako mandatuei dagokien zenbatekoa. Horregatik, aipatutako zirkularrak adierazten du erakundeak egiaztatu eta frogatu egin behar duela finantzaketa zuzenean lotuta dagoela botere adjudikatzailearengandik jasotako mandatuekin, baina hori ez dago egiaztatuta espedientean. Hori dela eta, ez da egiaztatu Erika Fundazioak SPKLren 32.2.b) artikuluan eskatzen den betebeharra betetzen duenik Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzeko.

SPKLren 32.2 artikulua d) letran eskatzen den betebeharrari dagokionez (horren arabera, bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera espresuki aitortu behar da mandatuaren erakunde hartzailearen estatutuetan), baldintza hori fundazioaren estatutuen 1. artikulua idazketa berrian jasotzen da, eta horren aldaketa Gobernu Kontseiluak onartzeko helarazi da, aipatutako d) letraren 1. puntuko eskakizuna betez.

SPKLren 32.2 artikulua d) letrako 2. zenbakian ezarritako betebeharrari dagokionez, egiaztatu da Erika Fundazioa ez dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan sailkatuta; horregatik, nahitaezkoa da Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiaztatzea erakunde horrek giza baliabide eta baliabide material egokiak dituela agindu liezazkioketen mandatuak egiteko.

IV.- ONDORIOAK.

Espedientean ez denez egiaztatu finantzaketa zuzenean lotuta dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetatik jasotako mandatuekin, ez da egiaztatu Erika, Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioak betetzen duela SPKLren 32.2.b) artikuluan erakunde horien bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzeko eskatzen den betebeharra. Nolanahi ere, aipatutako fundazioak, hala badagokio, egiaztapen hori erraztu ahal duenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honen txostena eskatu ahal izango da berriro.